

Nafarroaren erabakitzeko eskubidearen alde

*Lorafnaren analisia eta
Nafarroaren estatus
politiko berri baterako
proposamenak*

2025eko urria



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Sarrera

2023ko urrian Nafarroako Parlamentuak batzorde bat sortu zuen Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoa (gaztelaniaz LORAFNA) eguneratzea aztertzeko.

Dokumentu honetan ELA sindikatuak Lorafnari buruzko iritzia eman nahi du, baita Nafarroaren estatus politiko berri bati buruzko proposamena azaldu ere; estatus hori ELAren ustez erreferendum batean berretsi beharko litzateke. Nafarroako herritarren erabakimen askea oinarritzat hartuta, ELAren lehentasunak dira justizia soziala, euskararen normalizazioa eta nafar herritarrei Estatuarekiko eta gainerako euskal lurraldeekiko gure harremana erabakitzeko zor zaien eskubidea.

1. Testuinguru historikoa

1.1. Trantsizioa Nafarroan, frankismoaren zaintzapean

1975eko azaroan Franco hil zenetik 1979ko apirilean udal- eta foru-hauteskundeak izan ziren arte Foru-Diputazioak, Nafarroako gobernu-organo gorenak, erakunde frankista gisa iraun zuen, jatorriari zein osaera politikoari zegokionez. Diputazioa 1974an hautatu zuten hauteskunde antidemokratiko batzuetan, gutxieneko eskubide demokratikoak (adierazpen- eta bilera-askatasuna...) bermatuta ez zeudelarik. Diputazio frankista hark zaindu zuen trantsizioa eta foru-erregimen berria.

1.2. Lorafnaren negoziazioa baztertzaileria izan zen

1980an Estatutuaren eztabaida egiteko Nafarroak eta Estatuak osatutako Batzordea eratu zen. Estatuaren ordezkari Rodolfo Martín Villa izan zen, goi-agintari frankista, gero 1978ko Sanferminetako eta Gasteizko 1976ko martxoaren 3ko hilketengatik auziperatu zutena. Nafarroaren aldetik batzordekideak UCDko 4 diputatu, PSEko 3 eta UPNko 1 izan ziren. Beraz, Nafarroako negoziatzaileen artean Parlamentuko heren bat baztertu zuten, hain zuzen Herri Batasuna, hauteskunde-elkarteak, Euskal Abertzaleak (EAJ eta EE), Unión Navarra de Izquierdas eta Alderdi Karlista (zeina garai hartan Hego Euskal Herriko lau euskal lurraldeen batasunaren alde zegoen ere).

23-F eta LOAPAren saiakera berzentralizatzailearen ondoren Foruaren Hobekuntza (Lorafna) etorri zen; azken lege hau indar espainolistek bakarrik negoziatu zuten Madrilgo Gobernuarekin, Parlamentuan gehiengoz ontzat emandako atal batzuk kendu eta gero; esaterako, euskara Nafarroa osoan izango zela koofiziala. 1982ko martxoaren 15ean Foru ganberan Hobekuntzaren alde UCDk, UPNk eta PSOEk egin zuten; EAJk kontrako botoa eman zuen, eta gainerako indarrek bozketatik alde egin zuten, legearen kudeaketa antidemokratikoa salatzeko.

1.3. PSOE Nafarroan; egoitzetan ikurrina jartzetik Euskal Herria ukatzera

1979ko lehen hauteskundeetan Parlamentuan osatu zen gehiengoak -PSNko 15 parlamentarioak barne; orduan oraindik ere PSEren kide ziren- lau euskal lurraldeen arteko marko instituzional bakarra eratzearen alde zegoen. 1979ko uztailean sozialista nafarren estatutu berriek ziotenez "Nafarroa Euskal Herriko komunitate naturala"ren parte zen, eta "lotura politiko hau askatasunez erabaki behar zuen nafarren gehiengoak" (agiri hau besteak beste Urralburuk, Asiainek eta Solchagak sinatu zuten...). Sozialistek Nafarroako egoitzetan ikurrina zeukaten jarrita, eta parlamentario nafar guztiek -UCDkoek izan ezik- parte hartu zuten Euskal Parlamentarioen Batzarrean (1977-78).

Haatik, prozesu ilun baten ondorioz 15 parlamentario sozialisten iritzia aldarazi egin zuten; Euskal Kontseilu Nagusian parte hartzeari uko egin zioten (1978-80). Del Burgo zen orduan Diputazioko lehendakari berria, eta hariak mugiarazteko astia izan zuen FASA kasuan agerian geratu zen ustelkeriagatik (81 milioi pezetako mailegua eman zion Diputazioak Fundiciones de Alsasua enpresari, baina honek ez zuen itzuli) kargutik kendu zuten arte: "Para facilitar el alejamiento progresivo de los socialistas navarros del señuelo de Euzkadi, otorgarles la presidencia del Parlamento puede ser un buen comienzo; hay que implicar al PSOE en el ejercicio del poder foral". Xede horrekin ezkutuan negoziatu zuen eskuinak babesa eman ziezaion Victor Manuel Arbeloa (PSOE) Parlamentuko presidente izateko (1979ko apirila); gainera, Balduz ere Iruñeko alkate hautatu zuten, eta ez Herri Batasuneko Patxi Zabaleta.

Horren ondorioz, Parlamentuan Nafarroa euskal prozesu autonomikoan sartzeko erreferendum bat galdegiteko bozketa egin zenean (1979ko abendua) sozialistek ez zuten botorik eman, eta horrela eskuinaren ezezkoa (UPN eta UCDrena) gailendu zen.

Mugimendu hauen azken urratsa izan zen, 23-Fkoa gertatu eta berehala, zuzendaritza sozialista nafarraren barne-ebazpen bat (nahiz eta El Pais egunkariaren arabera hura Felipe Gonzalezek bultzatu zuen) PSN sortu eta Euskadiko alderditik banatu zuena, Urralbururen gidaritzapean (berau Nafarroako gobernuburu izan zen gero, eta bere ibilbide ustela medio hainbat urteren buruan espetxeratu egin zuten).

1.4. Foruaren Hobekuntzak Nafarroako elite erreakzionarioen pribilegioak bermatu zituen

Hobekuntzaren onarpen prozesuak agerian utzi zuen nafar elite erreakzionarioen jokabide historikoa: beti gehiengo sozialen borondate eta beharren gainetik kokatu zituzten haien interesak. Eliteok osatzen zuten urtetan "Corralito Foral" esaten zitzaiona: honetan parte hartzen zuten UPNk, PSNk, CENek, Opusen Unibertsitateak, Diario de Navarra egunkariak... UGTk eta CCOOek ere bat egin zuten harekin, eta milioika jaso zuten diru publikoa, konfrontazioa baztertzearen truke.

2015ean, ustelkeriaren eta murrizketa sozialen kontrako mobilizazio sozialaren ondorioz, UPN Nafarroako Gobernutik kentzea lortu zen. Tamalez, hamar urte igarota ere "Corralito Foral" delako haren garaitan ezarritako politika ugari indarrean da oraindik: Zerga-erreformaren ukapena, austeritate politikak, zerbitzu publikoetarako inbertsio urria, zaintzaren pribatizazioa, AHT...

2. Nafarroa, estatus politikoa herritarrek erreferendum bidez berretsi ez duten lurralde historiko bakarra

la mende erdi igaro delarik Nafarroa da Estatutuari buruz herritarren kontsulta egin ez duen lurralde historiko bakarra. Alabaina, paradoxa bat da Nafarroa izatea autonomia-erkidego bakarra beste erkidego bati atxikitzea bozka dezakeena (Konstituzioaren IV. Xedapen Iragankorra); aukera hori berariaz debekatzen zaie gainerako autonomiei (Konstituzioaren 145. art.).

40 urte luze hauetan LORAFNAn hiru aldiz egin dira aldaketak: 2001ean (lehendakaria hautatzeko prozedura automatikoa bertan behera utzi zen), 2010ean (hauteskunde aurreratuak izanez gero legealdia lau urtetik haratago luzatzeko aukera) eta 2024an (trafikoaren eskumenaren ingurukoa). Hala ere, 1982ko Lege Organikoarekin gertatu zen bezala, erreforma hauetako bat ere ez dute herritarrek berretsi ahal izan.

3. Estatuarekiko aldebikotasun faltsua

Zenbait politikarik behin eta berriz esaten dute Nafarroaren eta Estatuaren arteko harremana berdinen artekoa dela. Haatik, errealitateak ez du horrekin zerikusirik: Estatuak, logika zentralistari jarraiki, eskuduntzetan inbasioa gertatu dela argudiatuz lege nafarren kontra jo du; hauetako batzuek kutsu sozial nabarmena zuten (doako arreta sanitarioa, farmazietako koordainketa, fracking-a, polizien bortizkeriaren biktimak...). Madrilek eskuduntzak horrela inbaditzeak eragiten du Nafarroa Estatuaren leihatila huts bilakatzea.

Gainera, bada Lorafnaren baitan Nafarroak bere gain hartu beharko lukeen hainbat eskuduntza, baina hauen eskualdatzea ez da oraindik ere gauzatu. PSNk, Geroa Baik eta Contigo Zurekinek sinatutako akordio programatikoak dio Estatuarekin negoziatzen hasi behar dela Lorafnak Nafarroari aitortzen dizkion eskuduntzen inguruan.

Trafikoaren eskumena Nafarroak bere gain hartzearen auzia, berriz, Hobekuntzak dio ahalmen hori Foru-Erkidegoari dagokiola, Estatuak frankismoan usurpatu bazuen ere. Alabaina, duela gutxi gauzatu den transferentzia ez da izan Nafarroaren eta Estatuaren arteko harremana aldebikoa delako, baizik eta Auzitegi Gorenak (2018ko martxoa) ebatzi duelako eskuduntza hori Nafarroari dagokiola.

4. Nafarroako gutxieneko soldataren aukera ukatzeak agerian uzten ditu Lorafnaren eta elkarrizketa sozialaren mugak

2025ean ELAk eta beste sindikatu batzuek dinamika bati ekin genion LGSa Nafarroan bertan erabaki zedin, gure errealitate sozioekonomikoaren arabera. Aldaketa honek zuzenean mesede egingo lioke lan-munduan egoerarik prekarioenean dagoen jendeari; bestalde, autogobernuan eta berdintasunean aurrerapausoa litzateke generoak eta jatorriak eragindako soldata-arrakala murriztuko bailuke. Horrela egiturazko prekaritatea borrokatuko litzateke eta berdintasun handiagoa legoke oinarritzko eskubideen aitorpenean, esaterako etxebizitzan eta zaintzan.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak, CENek, CCOOek eta UGTk proposamen hau baztertu egin dute. Areago, Maria Chivite lehendakariak herri-ekimen legea sustatu zutenei bilera ukatu die; CENek, UGTk eta CCOOek bat egin dute Nafarroak bere LGSa finka dezan ukatzeko.

5. Irismen laburreko Batzordea

Ez dugu uste Parlamentuan sortu den batzordea pizgarria izango denik Nafarroaren estatus politikoa zalantzan jartzeko, ez eta herritarrei kontsulta egiteko ere. Izan ere, batzordearen helburua da "Lorafnaren eguneratzea aztertzea". Hots, helburua ez da proposamen bat zehaztea, baizik eta balizko eguneratze bati buruz gogoeta egitea. Halaber, PSNk, Geroa Baik eta Contigo Zurekinek sinatutako 2023-2027 akordio programatikoak ez dio Lorafnaren markoari erasaten.

UPNk, PSNk eta PPk dagoeneko esan dute batzordea "euste-horma" bat izango dela Nafarroaren estatus politikoaren aldaketa saiakeren aurrean; PSNk ere aurreratu du ez duela onartuko batzordeak Nafarroa hizkuntz-inguru edo zona ezberdinetan banatzeko sistema desagerrarazteko modua izatea.

Edonola ere, EH Bilduren eta Geroa Bairen proposamenak abiapuntua izan daitezke lokartuta zegoen eztabaidari berriz heltzeko. Batetik, EH Bilduk plazaratu dituen oinarrietan aldarrikatzen da "Nafarroa aitortzea erabakitzeko subjektu politiko gisa, hala Estatuarekiko nola beste euskal lurraldeekiko". Halaber, euskara lurralde guztian ofiziala izatea eta akordioa erreferendum baten bidez berrestea aurreikusten du, baita bermeak Estatuarekiko aldebikotasuna benetakoa izan dadin. Bestalde, Geroa Baik ere dio Nafarroa dela "ahalmen osoa duen subjektu politikoa bere egitura politiko-instituzionala askatasunez eta demokratikoki erabakitzeko", eta uste du Lorafnaren eguneratzeak "herritarren berrespena" jaso behar duela.

6. ELAren proposamenak

ELAren iritziz beharrezkoa da Nafarroarentzako estatus politiko berri batekin burutuko den prozesu bat hastea. Estatus hori ondoren erreferendum bidez berretsi behar da; Nafarroako biztanleen erabakimen libreari bide eman behar dio; euskararen ofizialtasuna lurralde osoan ezarri behar du, eta tresnak eskaini behar ditu gizartea eraldatzeko, berdintasun sozial, genero eta ingurumenari dagokionez.

Sindikatu honek zilegitasun hirukoitza du Nafarroak estatus politiko berri baten bila proaktibo izan dadin. Lehenik, kontutan izan behar da ELA izan zela "Corralito Foral" haren erasoia jasan zuen erakundeetako bat (hainbat organoetatik baztertu zuten, ELAko afiliatuak kaleratzeko zerrenda beltzak...). Bigarrenik, ELAk, beste erakunde sozial askorekin batera, eman ziolako bultzada UPN Nafarroako Gobernutik ateratzea eragin zuen ustelkeriaren eta murrizketa sozialen aurkako mobilizazio-zikloa. Hirugarrenik, egunetik egunera Nafarroako langileek babes gero eta handiagoa ematen digutelako. Nahiz eta UGT zein CCOOi diru publikoa milioika eman dieten, eta patronalak sindikatu horiek sostengatu dituen, 2010ean lehen sindikatuak guk baino 600 ordezkari gehiago zituen; egun 120 ordezkari aldea dago. Gainera, 2022ko urritik aurrera Nafarroan 1.500dik gora ordezkari ditugu; honek ordezkaritza gehieneko sindikatu bihurtu gaitu, eta horri erantsi behar zaio sindikatuak Nafarroan 11.000 afiliatu baino gehiago dituela.

Nafarroan justizia soziala areagotzeko sindikatuaren ekarpena da lantokietako gure ekintza, negoziazioz negoziazio aberastasunaren banaketa gero eta hobe izan dadin. Gehien harrotzen gaituen kontuetako bat da Erriberan dugun ezarpena: Hautatzen diren ordezkarien ia % 24 ELAkoak dira; honenbestez, Nafarroa guztian zehar zinezko ezarpena duen erakunde abertzale bakarra gara.

6.1. Nafarroaren erabakitzeko eskubidea

ELAk aldarrikatzen du Nafarroari bermatu egin behar zaiola erabakitzeko eskubidea, herritar nafarren borondatea beste mugarik gabe. Gogoratu beharra dago Nafarroa dela erkidego historiko bakarra zeinaren estatus politikoa ez den erreferendum bidez berretsi. Gainera, kontutan izan behar da ere Nafarroako egungo biztanleen hiru laurdenek ez dutela Hobekuntzaren onarpen prozesua bizi izan.

6.2. Beste euskal lurraldeekiko harremana

Lorafnaren eguneratzearekin batera aitortu beharra dago Nafarroa erabakimena duen subjektu politikoa dela, bai Estatuarekiko, bai beste euskal lurraldeekiko. ELAren ustez Nafarroa Euskal Herriaren parte da, gainerako euskal lurraldeekin batera komunitate historiko eta kultural nazionala osatzen du, eta horregatik defendatzen dugu euskal errepublika burujabe bat eratzea.

6.3. Prozesu partehartzailea, mobilizatzailea, betorik gabea eta bermeduna

Gizarteak oro har, eta batik bat gizarte antolatuak parte-hartze eta mobilizazio maila handiena duen prozesua nahi dugu. ELArentzat ezinbestekoa da jendartea ahalduntzea, eta ekidin behar da gehiengo sozialaren eskariei entzungor eginez eliteek prozesua euren interesen arabera gidatzea. Halaber, ELAk ez du onartzen Nafarroaren estatus politikoaren eztabaidan Estatuak betorik edo mugarik jartzeko aukera duenik.

Azkenik, behar-beharrezkoa da, autogobernua aurrera eginez gero, hori gauzatzeko bermea izatea, hots, Nafarroaren eskuduntza eskusiboak zehaztasunez zedarritzea eta Estatuak ez duela esku hartuko ziurtatzeko klausulak ezartzea. Honi dagokionez eskuduntzen inguruko gatazkak ebazteko berariazko auzitegi inpartzialak sor litezke, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren kontrolatik at.

6.4. Euskararen normalizazioa

Euskara nafarron ondare komuna da, Nafarroan eta Euskal Herrian jatorria duen hizkuntza. Hemen hitz egiten diren hizkuntzen artean bera da beste inondik etorri ez den bakarra, eta beste inon mintzatzen ez dena. Ondasun komuna izanik guztion eskura jarri behar da; euskara erabiltzeko eskubidearen aitortza orokorra egin behar da, eta inork ezin du hura erabiltzeko mugarik jarri, gaztelaniari ere jartzen ez zaion bezalaxe. Euskara mehatxu edo arrisku gisa ikusarazteko estrategia antidemokratikoen ondorioak diskriminazioa eta eskubideen murrizketa dira.

Euskara Nafarroa osoan izan behar da ofiziala, herritar guztien eskubideak bermatzeko. ELAk euskaraz bizitzeko eta lan egiteko nafar herritar denen eskubidea aldarrikatzen du, edozein lekutan bizi direla ere. Nafarroa ezin da zonatan banatu, banaketa horrek eskubide berdintasuna urratzen baitu. Zonen banaketa Lorafnak berak ezarri zuen, eta Euskararen Legeak garatu zuen. Zonen iraupenak logikarik gabeko egoerak luzatzea dakar, esaterako funtzio publikorako hautaketan deialdi batzuetan alemana, frantsesa edo ingelesa aintzat hartzea, eta euskara baztertzea.

Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna da euskararen moduko hizkuntzak babesteko nazioarteko bitarteko juridikorik behinena. Europar Kontseiluko Ministroen Komiteak 1992an erabaki zuen nazioarteko Itun bat da, espainiar Estatuak 2001ean berretsia. Nafarroak, ikuspuntu juridikotik, gutun horrek ezartzen dituen nazioarteko betebeharrak aintzat hartu behar ditu, baina ez Lorafnak, ez Euskararen Legeak, ez dute betetzen. Gainera, bi legeak aspaldikoak dira (Lorafna 1982koa eta Euskararen Legea 1986koa), eta beraz, ez datoz bat egungo errealitate soziolinguistikoarekin.

Horregatik estatus politiko berri bat eta euskararen lege berri bat behar dira, hizkuntzen araberako zonak bertan behera uzteko eta euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzeko. Identitateak lausotzen diren garai honetan funtsezkoa da identitate kolektiboak jostea eta

elkartasuna oinarritzat hartuko duten eraldaketa sozialetan indar handiagoz eragitea. Horregatik, ELAk dio euskara sustatzeak komunitatearen ideia indartzen duela, eta horrek elkartasuna sustatzen du.

Euskara Nafarroa guztian ofizial izateaz gain tokiko autonomia ere beharrezkoa da prozesua herri bakoitzeko ezagutza eta ezarpen mailari egokitzeko. Nolanahi den, udal orok bete beharreko jardunbide komun batzuk bermatu beharko lirateke; hortik aurrera tokian tokiko errealitate soziolinguistikoaren baitako jarduna garatuko litzateke. Helburua izan behar da mailaka eta erritmo ezberdinez euskararen normalizazio betea eta eremu sozial guztietan euskaraz bizitzeko eskubidea iristea.

Orobat, hezkuntzan ezinbestekoa da Nafarroako ikasle guztiek euskararen gutxieneko ezagutza izango dutela bermatzea. Izan ere, euskara jakitea gizarte nafarraren kohesiorako tresna izan behar da. Gainera, euskara ikasteak ez du eragozten beste hizkuntza batzuek ikastea, pentsamolde elebakar zurruneke jende batek pentsarazi nahi duen kontrara. Ez da logikoa atzerriko hizkuntzak derrigor ikastea eta berezkoa dena ez. Bestalde, ELA PAIren moduko programen aurka dago, halakoetan euskara baztertu egiten baita beste hizkuntza batzuen ikasketaren aitzakiaz. PSNk ez du zalantzarik egin PAIren ezarpenean UPN, PP eta Voxekin bat egiteko. Gainera, gogoratu beharra dago Nafarroako Gobernuak zenbait agintari, besteak beste egungo Hezkuntza kontseilaria, eskuin muturrak 2018ko ekainaren 2an euskararen kontra deitu zuen manifestazioan izan zirela.

6.5. Eskuduntza gehiago bereganatzea

ELAren ustez Nafarroaren estatus politiko berriarekin lortu behar da lehenagoko eskuduntzen garapen betea eta ondorengo ahalmenak ekartzea:

- Zerga- eta aurrekontu-politika erabakitzeko autonomia; gastu-muga eta austeritate politikak bertan behera geratu behar dira.
- Lan-harremanetako eta gizarte-babeseko marko propioa, lan-legedi guztiaren transferentzia barne.
- Gizarte-Segurantzako sistema nafar independentea.
- Sektore publikoko lan-baldintzak arautzeko ahalmen eksklusiboa; birjartze-tasa kendu behar da, Nafarroak askatasunez finka dezan enplegatu publikoen kopurua.
- Hezkuntza eremuan bertoko curriculum ezartzeko eskuduntza.
- LGSaren zenbatekoa erabakitzeko eskuduntza.
- Lan-ikuskaritzako eskuduntzen ardura hartzea.

6.6. Trafikoaren eskuduntzarekin batera beste poliziek irten behar dute

ELAk betidanik egin du Nafarroak trafikoaren eskuduntza bereganatzearen alde; prozesu hori gauzatu behar da Foruzaingoko lantaldea handituz, ez Guardia Zibila Foruzaingoan txertatuz. Trafikoko eskuduntza bere gain hartzea izan behar da Foruzaingoaren garapen beterako lehen urratsa; halaber, prozesu horren ondorioa izango da Guardia Zibilak, Polizia Nazionalak eta espainiar Armadak Nafarroatik irtetea.

Bestalde, polizia ereduaren inguruko eztabaidari heldu behar zaio. Zentzu horretan, ELAk polizia profesional baten alde egiten du, izaera zibilekoa, genero-ikuspegia duena eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzen dituen.

6.7. Estatus berri bat justizia soziala, feminismoa eta justizia klimatikoa areagotzeko

ELAren aburuz Nafarroaren estatus politiko berria izan beharko litzateke justizia soziala, feminismoa, eta justizia klimatikoa areagotzeko parada. Oraintxe bertan, Nafarroan hainbat urtez hazkunde ekonomikoa izan den arren, desberdintasun sozialak handitzen ari dira: dagoeneko 114.000 herritar baino gehiago pobrezia arriskuan bizi da. Desberdintasun sozialaren hazkundeari aurre egiteko beharrezkoa da zerga-erreforma bat, eta Gobernu honen zerga-politika baztertu behar da, UPNk duela 10 urte utzi zuena bezalakoxea baita, eta etxebizitza izateko eskubidea bermatu behar da.

Justizia soziala areagotzekotan ezinbestekoa da genero-desberdinkeria borrokatzea, etxebizitza izateko aukera bermatzea eta bertan behera uztea inpaktu ekologiko izugarria duten azpiegiturak, esaterako Abiadura Handiko Trena.

6.8. Nafarroa, harrera herria

Nafarroan herrialde desberdinetako gero eta jende gehiago bizi da; biztanleriaren ia %20 atzerrian sortua da. Jende hau etorri da bizi-baldintza hobekitzeko, arrazoi ezberdinetatik (bortizkeria egoerak, klima-aldaketak eragindakoak, bizimodua hobetzeko nahia edota giza-eskubideen urraketa dela eta babes eta aterpe berezia behar izatea). Beste herrialde batean hutsetik hasi beharrean dira, eta desberdintasuna eta diskriminazioa pairatzen dute. Migratzaileek derrigor ekonomia ezkutuan egiten dute lan, eskubideen bermerik eta lan-osasuneko baldintza egokirik gabe, Estatuak ezarritako Atzeritarren Lege bidegabearen ondorioz. Egoera honen kalteak bereziki emakume migratuak dira; hauek maiz esplotazio egoeran egiten dituzte zaintza lanak. Horregatik beharrezkoa da Nafarroaren estatus politiko berria migratzaileen bizi-kalitatea hobetzeko baliatzea, etxebizitza, hezkuntza eta gizarte-ongizateko eskuduntzak indartuz.

6.9. Nafarroaren historia aitortu

Lorafnaren atarikoak Nafarroaren historiaren ikusmolde murriz eta lerratua islatzen du: aipatzen da Nafarroak "Espainiako nazio-batasuna eratzeke prozesuarekin bat egin" zuela, eta ezkutatu egiten da mendetan Erresuma independentea izan zela. Horregatik, estatus politiko berriak Nafarroaren historia aitortu eta aintzat hartu beharko luke.

6.10. Memoria demokratikoa

UPNk Gobernutik irten zuenetik aurrerapen handia izan da gai batean, memoria demokratikoaren eta polizien abusuen biktimen aitortzan. Alabaina, horretan ere urratsak egiten jarraitu beharra dago, eta hor aipatu behar da Erorien Monumentuaren eraispena. Horregatik, estatus politiko berria izan behar da frankismoaren milaka biktimen oinazea erreparatzeko bitartekoa.

7. Ondorioak

- Lorafnaren inguruko prozesua frankismoak zaindu zuen, baztertzaila izan zen eta Nafarroako elite erreakzionarioen pribilegioei eusteko baliatu zen.
- ELAren iritziz Nafarroaren erabakitzeko eskubidea bermatu behar da, eta nafar biztanleriaren determinazio askerako eskubidea errespetatu, herritar nafarren borondatea beste mugarik gabe.
- ELAren aldarria da Nafarroarentzako estatus politiko berri bat; herritarrei horri buruzko kontsulta egin behar zaie, besteak beste erabakitzeko zein izan behar den Estatuarekiko eta beste euskal lurraldeekiko harremana.
- ELAren iritziz Nafarroa Euskal Herriaren parte da, beste euskal lurraldeekin komunitate historiko eta kulturala osatzen du, eta horregatik defendatzen dugu euskal errepublika independente bat eratzea.
- Hori lortzeko prozesu partehartzaile eta mobilizatzaile bati ekin behar zaio, betorik gabea eta bermeduna.
- Nafarroaren estatus politiko berriarekin Euskararen Legea aldatu behar da, egungo zonen banaketa bertan behera utzi eta euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadin.
- Estatus politiko berria baliatu behar da besteak beste eskuduntza berriak eskuratzeko eta justizia soziala, feminismoa eta justizia klimatikoa areagotzeko.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA